

EAEn 2008. urtean egindako industriako fakturazioaren %29 atzerrirako salmentak izan ziren.


Ekoizpen faktoreen ordainketak banaketa hau izan zuen: %53 lan faktorean eta %47 kapitalaren faktorean

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko industria sektoreak 19 mila milioi eurotik gorako esportazioak egin zituen atzerrira, 2008. urteko salmenta guztien %29. EAEko industriaren salmenta guztien (66 mila milioi eurokoak) %38 Euskal AEko merkatuak hartu zuen eta Estatuko gainerako salmentak %33 izan ziren.

EAEko industriaren ekoizpen-egiturari, ekoizpenaren %71 bitarteko kontsumoena izan zen, %1 zerga garbiak izan ziren, eta gainerako %28 sortutako balio erantsia.

Balio erantsi horren banaketan, %54 lan faktoreak ordaindu zuen, %31 enpresa-soberakina izan zen eta gainerako %15 amortizazioak ordezkatzeko duen kapitalaren balio-galeraren hornidura izan zen.

1. grafikoa. Industri sektoreko ekoizpenaren eta balio erantsiaren banaketa 2008an (%)



Source: EUSTAT. Industrial Statistics

Aurreko urtearen aldean, 2008. urtean EAEko industriaren balio erantsiak %2,2 egin zuen gora. Sektoreetan portaera ezberdinak eman ziren gainera: energiaren sektorean %20tik gorako hazkunde tasak izan ziren; baina metalurgia eta makinak bezalako manufakturen beste sektore batzuek (EAEko industrian garrantzi handikoak) justu-justuan mantendu zituzten 2007. urteko kopuruak.

Industriako enpleguak %2,0 egin zuen behera 2008. urtean; bost mila enplegu garbi galdu ziren. 1995. urteaz gero enpleguak ia etengabe egin zuen gora; baina 2008. urtean joera aldatu zen EAEko industriako enpleguaren sorreran.

Industriako ia sektore guztietan galdu zen enplegua, honakoetan izan ezik: energia, petrolioaren birfinketa, kautxua-plastikoa eta garraio-materiala, besteak beste.

Hori gorabehera, 1998 eta 2008 urteen arteko balantzea haxe izan da: industria sektoreak hogeita hamabost mila enplegu baino gehiago izan zituen, 1998. urtean 215.149 enplegu zituen eta 2008. urtean 250.292.

1. taula. Industriako aldagai nagusiak. Euskal AE. Urteko prezioak (mila €)

Uneko prezioak	2007	2008	Δ %
Landunak	255.294	250.292	-2,0
Balio erantsi gordina faktore-kostutan	17.615.267	17.997.138	2,2
Ustiapeneko soberakin gordina	8.247.568	8.199.926	-0,6
Egindako inbertsioak	2.598.755	3.008.790	15,8
Amortizazioak	2.685.622	2.685.424	0,0
Negozio-zifrak	62.025.278	66.247.729	6,8
Ustiapen-kontsumoak	36.549.668	40.005.374	9,5
Kanpo-zerbitzuak	8.148.591	8.710.480	6,9
Lagileria-gastuak	9.367.699	9.797.212	4,6
Zergen aurreko emaitzak	5.183.615	4.591.077	-11,4
Cash-Flow-a	7.869.237	7.276.501	-7,5

Iturria: EUSTAT. Industria estatistika

Jarraian, Euskal AEko industri sektoreak 2008. urtean izandako bilakaeraren alderdi garrantzitsuenak azaltzen dira:

- Negozio kopurua %6,8 gehitu zen 2008. urtean, aurreko urtearen aldean betiere.
- Energiaren sektoreak izandako bilakaera positiboa alde batera utzita, Industriaren Balio Erantsiak %0,2ko beherakada izan zuen. Balio erantsiaren beherakada handiena honako sektoreek izan zuten: petrolioaren birfinketa (-%33,0), zuraren industria (-%4,8), papera (-%1,6) eta metalurgia (-%1,2). Beste aldean, material elektrikoa (+%10,1), garraio-materiala (+%4,1) edo industri kimikoa (+%1,4) bezalako sektoreek hazkunde positiboak izan zituzten.
- Ustiapeneko Soberakin Gordinak %0,6 egin zuen behera, nahiz eta aurreko urtean %8,8 igo.
- Industriaren cash-flowak %7,5 egin zuen behera eta zergak baino lehenagoko emaitzak % 11,4.

Lurraldeka, 2008. urtean, industriako BEGaren hazkunderik handiena Bizkaiko lurraldeak izan zuen (%3,6). Ondoren Arabak izan zuen hazkunderik handiena (%2,9) eta azkenean Gipuzkoak, bere industriak %0,2ko hazkundera izan zuelako.

2008. urtean eraikuntzaren sektoreko enplegua %5 jaitsi zen eta, beraz, aurreko urteko BEG eta ekoizpen mailak mantendu ahal izan zituen.

Lurralde mailan, portaera orokorra errepikatu zen: enpleguak oro har behera egin zuen. Bilakaera pixka bat positiboagoa izan zen bai ekoizpenean bai balio erantsian, Gipuzkoan. Arabako balio erantsiak ez zuen igoera handirik izan eta Bizkaikoak %0,5 egin zuen behera.

2. taula. Eraikuntzako aldagai nagusiak. Euskal AE. Urteko prezioak (mila €)

	2007	2008	Δ %
Landunak	101.437	96.406	-5,0
Balio erantsi gordina faktore-kostutan	5.799.692	5.806.205	0,1
Ustiapeneko soberakin gordina	2.276.497	2.098.205	-7,8
Egindako inbertsioak	336.036	255.285	-24,0
Amortizazioak	281.875	269.545	-4,4
Negozio-zifrak	19.766.324	19.762.927	0,0
Ustiapen-kontsumoak	12.593.631	12.709.459	0,9
Kanpo-zerbitzuak	1.988.964	2.004.443	0,8
Lagileria-gastuak	3.523.195	3.708.000	5,2
Zergen aurreko emaitzak	1.733.896	1.413.937	-18,5
Cash-Flow-a	2.015.771	1.683.482	-16,5

Iturria: EUSTAT. Eraikuntzako estatistika

Beste alderdi hauek ere azpimarratu behar dira:

- Landunen kopuruak %5,0 egin zuen behera, baina aurreko urtean %5,3 igo zen. Honek bost mila lanpostu galtzea ekarri zuen.
- Ustiapeneko soberakin gordina %7,8 jaitsi zen eta langileen kostuak %5,2 igo ziren.
- Negozio kopurua 2007. urtean erregistratutako mailetan mantendu zen.
- Zergak baino lehenagoko emaitzak %18,5 jaitsi ziren eta kutxako fluxua %16,5. Amortizazioen maila %4,4 jaitsi zen.

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Iosune Azula

Tel.: +34-945-01 75 09 Faxa: +34-945-01 75 01

[Prentsa-oharrak Interneten: Industria](#)

[Datu-bankua: Industria](#)